Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

*Klara Urbieta Albizu*

*Zumaia, Gipuzkoa (1924-2017)*



Aurkibidea

## Biografia



Zumaian jaio zen 1924an, bost anai-arrebatan gazteena da. Eskolan, mojetan ibili zen. 12 urte zituela gerra hasi zen, eta herritik bidali zituzten anaia bat ihesi joan zelako. Zumaia utzi eta Bilbon egon behar izan zuten lagun batzuen etxean. 14 urte zituela, Zumaiako 'Probost' arrain-lantegian hasi zen lanean. Lantegiko lanaz gain, geroagoko urteetan jostun lanetan aritu zen Alberdi eta Etxaberentzako.

## Zintak

### ZUM-069

- **Proiektua**: Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Data**: 2009-06-15
- **Iraupena**: 50 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Otegi, Aitziber

### ZUM-070

- **Proiektua**: Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Data**: 2009-06-15
- **Iraupena**: 30 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Otegi, Aitziber

## Pasarteak

### 1. Eskolan, Zumaiako mojetan ibili zen

- **Erref**: ZUM-069/002
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:01:30. **Bukatu**: 00:04:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

**Laburpena**:
<p>Eskolara Zumaiako mojetara joan zen, maistra Gernika eta bermeotarrak izan zituen. Uniformea jantzita joaten ziren eskolara eta medaila edo gurutzeren bat eramaten zuten. Matematikako lau arauak eta historia ikasten zituzten, besteak beste.</p>

## 2. Egunero errezatu behar izaten zuen eskolan

- **Erref**: ZUM-069/003
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:04:10. **Bukatu**: 00:06:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

**Laburpena**:
Ordutik ordura errezatu behar izaten zuten, eskolan bertan kapila bat zuten. Garizuman ospakizun bereziak izaten ziren eta kantu eta errezo ugari egin behar izaten zuten.

## 3. Mojekin laborea lantzen

- **Erref**: ZUM-069/004
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:06:06. **Bukatu**: 00:07:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena**:
Arratsaldeetan laborea egiten zuten eskolan bertan.

## 4. 12 urterekin, gerra hasi eta Bilbora

- **Erref**: ZUM-069/005
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:07:20. **Bukatu**: 00:10:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena**:
12 urterekin, gerra hasi zen eta eskola utzi eta Bilbora joan behar izan zuten. Herritik bidali zituzten, eta lagun batzuen etxean egon ziren. Tropak sartu zirenekoa eta aita preso hartu zutenekoa azaltzen ditu.

## 5. Gerra garaian, gose handia

- **Erref**: ZUM-069/007
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:11:20. **Bukatu**: 00:12:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena**:
<p>Gerraostean, gosea pasa zuten; errazionamendua zegoen orduan. Otorduetako jakiak zein izaten ziren azaltzen du; ez zuten afaltzen.</p>

## 6. 14 urterekin Zumaiako arrain lantegira lanera

- **Erref**: ZUM-069/008
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:12:45. **Bukatu**: 00:15:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

**Laburpena**:
Bilbotik Zumaiara bueltatu eta 14 urterekin Zumaiako arrain lantegi batean hasi zen lanean. Antxoei burua kentzen zien eta kontserbatan jartzen zituzten. Lantegian denak emakumeak ziren. Italiara saltzen zuten asko, nagusiak frantziarrak ziren.

## 7. Aita arrantzalea zuen

- **Erref**: ZUM-069/009
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:15:30. **Bukatu**: 00:17:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

**Laburpena**:
Aitak txalupa bat zuen eta antxoatan eta txibietan ibiltzen zen. Zumaiako Glorioso San Telmo itsasontzia izendatzen du. Aita ume zirela gehienean etxetik kanpo ibiltzen zen arrantzan.

## 8. Arrantza sareak

- **Erref**: ZUM-069/011
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:17:49. **Bukatu**: 00:20:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

**Laburpena**:
Arrantzako sare mota ezberdinak aipatzen ditu. Eginda erosten zituzten eta puskatzen zirenean konponketan aritzen ziren. Kaleko arrain saltzaileak izaten ziren, Getariatik antxoa saltzera joaten ziren emakumeak Zumaiara.

## 9. Otorduetako jakiak

- **Erref**: ZUM-069/012
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:20:38. **Bukatu**: 00:21:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena**:
Eguneroko otorduetan baba jaten zuten gehienetan eta paneka arraina jaten zuten.

## 10. Ahizpak josten erakutsi eta jostundegi batean josten

- **Erref**: ZUM-069/014
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:22:04. **Bukatu**: 00:23:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena**:
18 urtera arte aritu zen kontserba lantegian lanean eta gero josten hasi zen jostundegi batean. Ahizpak erakutsi zion josten. Garai hartan emakumeek ez zuten galtzarik janzten, bekatu zen.

## 11. Mariatarren kongregazioan

- **Erref**: ZUM-069/015
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:23:57. **Bukatu**: 00:25:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

**Laburpena**:
<p>Klara Mariatarren kongregazioan egon zen eta zertan zetzan azaltzen du. Zinta urdin batetik zintzilik kontzesioko Ama Birjinaren medaila bat eramaten zuten.</p>

## 12. Lotuan dantzatzea bekatu

- **Erref**: ZUM-069/016
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:25:46. **Bukatu**: 00:26:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena**:
<p>Igandero musika egoten zen Goiko plazan eta udan behekoan. Zumaiako lagun taldea zuen. Lotuan dantzatzea bekatu zen eta eginez gero kongregaziotik botatzen zituzten.</p>

## 13. Umetako jolasak

- **Erref**: ZUM-069/017
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:26:54. **Bukatu**: 00:28:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena**:
Sokasaltoan, kukuka... jolasten zuten. "Anderea" deitzen zioten kartoizko panpinak izaten zituzten.

## 14. Traje batek mila pezeta inguru balio zezakeen

- **Erref**: ZUM-069/018
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:28:49. **Bukatu**: 00:30:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena**:
Josten aritzen zen garaian traje batek mila pezeta inguru balio zuen eta oihal oso onak izaten zituzten.

## 15. Arropak garbitzera labaderora

- **Erref**: ZUM-069/019
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:30:04. **Bukatu**: 00:32:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena**:
Argia eta ura beti izan zituzten etxean. Etxean arraska txikia zuten eta labaderora joaten ziren arropa garbitzera. Labaderoa nun zegoen azaltzen du. Balde handietan eramaten zituzten arropak. Gerra garaian xaboi txarra izaten zen.

## 16. Lehenengo irratia etxean

- **Erref**: ZUM-069/021
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:32:42. **Bukatu**: 00:33:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

**Laburpena**:
<p>Lehenengo irratia etxean ezagutu zuenekoa. Albisteak eta musika entzuten zituzten gehienbat eta dena erdaraz.</p>

## 17. "Hika" eta "berorri"

- **Erref**: ZUM-069/022
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:33:42. **Bukatu**: 00:35:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
<p>Anai-arreben artean eta gurasoek haurrei hika hitz egiten zieten. Mediku eta apaizei berorika egiten zieten. Gaurko Zumaiako euskararen aipamena.</p>

## 18. Zumaiako denda eta tabernak

- **Erref**: ZUM-069/024
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:36:12. **Bukatu**: 00:38:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

**Laburpena**:
<p>Zumaian denda ugari zegoen, mertzeria eta janari dendak gehienak. Emakumeen orrazkeraren ingurukoak. Emakumeak ez ziren tabernara sartzen, ez zuten ohiturarik. Kanturako joera handia zegoen kalean eta tabernetan.</p>

## 19. Ezkontzak

- **Erref**: ZUM-069/026
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:39:17. **Bukatu**: 00:40:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

**Laburpena**:
55ean ezkondu zen Zumaiako gizonarekin. Orduko ezkontzak nolakoak izaten ziren azaltzen du, emakumeak beltzez janzten ziren.

## 20. Lutoak eta jauna hartzeko baraua

- **Erref**: ZUM-069/027
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:40:52. **Bukatu**: 00:43:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena**:
<p>Guraso edo senidea bazen hiltzen zena bi urtez lutoa eraman behar izaten zuten beltzez jantzita eta denbora pasa ahala aldatzen joaten zen, traje gris edo txuri-beltzera. Igandero joaten ziren mezara bederatzietarako. Jauna hartu behar bazen baraurik joan behar izaten zen.</p>

## 21. Zumaian erribera ugari zeuden

- **Erref**: ZUM-069/032
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:48:18. **Bukatu**: 00:49:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

**Laburpena**:
Garai bateko Zumaia deskribatzen du, Erribera asko zeuden eta antxoa soberan bazegoen, sorora bota ohi zituzten ongarri gisa.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2025-12-10*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com